

opusdei.org

Jainkoagandik herri urrunenean, gotzaina Opus Deikoa da

Philippe Jourdan, Iparraldeko
gotzai eukaldunak: "Estonian
biztanleen ehuneko 16ak
bakarrik sinesten du
Jainkoagan"

2010 Aza 30

Estoniako hierarkia luteranoak,
moral eztabaidetan, "katolikoek zer
dioten begiratzan dute aurrena"

Eurobarometro 2005aren esanez,
Estonian, Errusia eta Finlandiaren
auzoko Baltikoko herrian,
biztanleen ehuneko 16ak bakarrik
sinesten du Jainkoagan.

Jainkoagandik urrunena dagoen
herria da, eta hango gotzaina,
Philippe Jourdan, Ipar Euskal
Herrikoa, eta Opus Deiko kide. Herri
honen erlijiozkotasun urria **ez da,**
noski, gotzain honen errua, baizik
eta 50 urtetan zehar jasan duen
errepresio sobietar gogorrarena
eta baita ere alde zurreko bost
mendeetako luteranismoarena,
pentsamolde indibidualista bati
bidea ireki diona.

Sei mila katoliko daude gutxi gora
behera, azaltzen du Jourdanek
“Palabra” aldizkarian. **“Erdia**
estoniarrak, denak sobietarren
azken urteetatik hona **federa**
bihurtuak. Besteak, antzinako
Sobietar Batasuneko lurralde

katolikoetatik etorriak: Bielorrusia, Ukraina eta Lituania”.

“Urtero 50 edo 60 kristau berri hezten ditugu. Behar bada gehiago heziko genituen estoniera dakiten apaiz gehiago bagenitu. Hizkuntzaren zailtasun honek mugatzen gaitu”. **Estoniera finlandieraren antza du bakarrik;** zaila egiten zaie latinezko, eslaviar edo germaniar hizkuntzak erabiltzen dituztenei, ez baitu erlazorik hizkuntza horiekin.

SESB zeneko beste leku batzuetan bezala, “konbertsioak batez ere hirietan gerta ohi dira **eta katoliko berri gehienek profila formazio intelektualeko jendea da, batez ere gazteak**”. SESBren hondamenak 20 edo 30 urteekin ezagutu zutenek “eskema marxistak eta hezkuntza sobietarrak markatuta jarraitzen dute”. Gaztetxoagoak, ordea, sinesmenera irekiagoak daude.

Katolikoak, gutxi izan ez ezik,
lurralde osoan zehar banaturik
daude. Haietaz arduratzeko,
**“hamabost apaiz baizik ez ditugu
eta haien artean lau bakarrik han
jaioak:** hiru estoniar eta errusiar bat,
Estonian sortua”. Lekuko eliza
katoliko txiki honek bi eskola
katoliko ditu, ospetsuak biak,
Tallinen eta Tartuen.

Jourdan gotzainak esaten digu
gainera, Eliza eta Aita Santua,
mundu osoa kontutan hartuz, ongi
ikusiak daudela. “Luteranoek,
ortodoxoek eta beste erlijiokoek Eliza
Katolikoak dionari begiratzen diote,
moral eta etika alorretan adibidez.
**Apezpiku luterano batzuk esan
didate moralari buruzko
eztabaidaren bat sortzen denean,
aurrena Eliza Katolikoak dionari
begiratzen diotela”**, esaten du
gotzainak. Benetan garrantzizkoa da
Estoniako luteranoek Erromara
begiratzea, kontutan izanda, luterano

suediarrek beren apezpiku-
emakume lesbianaz hain harro
daudelarik; eta jakinda Finlandian
isuna ezartzen dietela kleroan
emakumeak onartu nahi ez dituzten
artzainei, edota luterano baltiko eta
nordikoekin “interkomunioan”
dauden anglikanoak barneko krisi
larri bat jasaten ari direla.

Ofizialki Estoniako biztanleen
ehuneko 30ak erlijioaren bati
jarraitzen diola dio. Erdia luteranoek
osatzen dute; beste erdia ortodoxoek.
“Fede katolikoa gogorra dela diote
estoniarrek, hau da, asko eskatzen
duela, baina ulertzen dute
santutasunera iritsi beharraren
proposamens”, azaltzen du
gotzainak.

“Estoniarren izaerak gogoeta eta
kontenplaziorako joera du. **Oso
gustukoa dute latinezko liturgia,
kantu gregorianoa, bereziki
egokitzen baita estoniarren**

izaerara. Beste alde batetik, sinesmena ez dute behar adina komunitatearen gauza bezala ikusten, eta horrek nolabaiteko ahultasuna dakar”, Jourdan monsinorearen esanean. Hau, 1988tik Opus Dein inkardinatua, 1996tik Estonian lanean, 2005etik aurrera, Estoniako administratzaile apostoliko da.

“Nire aurrekoa kargu honetan, Eduard Proffittlich gotzaina, sobietarrenkontzentrazio esparru batean hil zen 1942an. Eta aurrekoa? XVI. mendera jo behar dugu... herri hau lau mende baino gehiago egon da gotzain katolikorik gabe

urrunenean-gotzaina-opus-deikoa-da/
(2025 Api 20)